

Goi

Goierritarra aldizkaria

391 zenbakia 2010eko azaroak 19



**JUAN KRUZ
MENDIZABAL
GIPUZKOAKO
BIKARIOA**

Asteazkenean Ordiziara joaterik ez dutenentzat zerbitzua

'NI ERE AZOKARA'




ALTAMIRA
JATETXEA



Altamiran
sukaldaritza
maite dugu

Altamirako kirolgunea / Ordizia
T 685 794 755 / altamira@igeri.net



FAKTORE

Goierritik 20 minutura...

Sukaldeak

Zeramikak

Bainugelak

Beheko suak



LOPETEGI
equipamiento integral de espacios

Uriz kalea, 29

Lakuntza (Nafarroa)

Tel.: 948 57 60 68



www.lopetegi.es



Goierritarra aldizkaria

GOIERRIKO **hitza** info

Egin harpidedun

GOIERRITARRA
urtean 27 euro

HITZA
urtean 67 euro

GOIERRITARRA+HITZA
urtean 72 euro

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:

• N A :

• Lanbidea:

• Jaioteguna:

• Helbidea:

• Herria:

• P.K:

• Tel.:

• Posta elektronikoa:

• Kontu zenbakia:

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------

902-82 02 01 (Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

harpidetza@hitza.info

Urbialde plaza, 7 behea • Beasain



Joxepa Madariaga

Aupa, Iñaxio!

Hizlari onak entzutea gus-tatzen zaidak. Berdin duk zer-taz hitz egiten duten; gaia eza-gutzen eta ondo espresatzen badira, guztia egiten zaidak interesgarri.

Adibidez, ez nauk batere kirolzalea. Irratiz kirolaren inguruan hitz egiten duten esatari gehienek odola bero-bero eta zabar hitz egiten dutela iruditzen zaidak. Bazirudik, askotan, geure bizia baino hobeto ezagutu beharko genukeela kirolariena, geure lana baino hobeto kontrolatu beharko genukeela kirola (arauak, txapelketen egutegiak, emaitzak...). Eta, ondorioz, hitz gutxiarekin, esaldiak erdizka esanez, dena ulertu beharko genukeela.

Nola ez ditudan arauak ezagutzen, nola ez dudan txapelketen berri, nola ez ditudan kirolariak ezagutzen... zabar eta hitz erdika hitz egiten duten esatariak ez dizkiat jasaten. Kirolaz ari direnean, irratia itzaltzen diat.

Gozatu ederrak hartzen dizkiat, gaia edozein dela ere, asko jakin eta dakiena ondo azaltzen duena entzuten.

Baduk kirol esatari bat, ordea, gure herritarra gainera, Joxemari Apaolaza hain zuzen, ederki jarduten dena, ondo baino hobeto hitz egiten duena: garbi, zuzen eta txukun. Irratia piztu eta, Joxemari ari baduk hizketan, nahiz eta ni, lehen esan bezala, kirolzalea ez izan, entzuten jarduten diat, gustura jardun ere. Berari esker diat kirolaz dudan informazio apurra.

Eman diadan kirolaren adibideak beste arloetarako ere balio zidak. Gozatu ederrak hartzen dizkiat, gaia edozein dela ere, asko jakin eta dakiena ondo azaltzen duena entzuten. Entzunaldi gozagarriak Goierriko Euskal Eskola Kultur Elkartetik antolatzen ditugun "Berriketan" eta "Liluratura" saioek ematen zizkigutek Lazkaon.

Zer diok hik horiei buruz, Iñaxio?



Inazio Usarralde

Hara, Joxepa... eta orain nola nahi dun nik kontra egitea, ir-tzi kontrajarriak plazaratzea, gure aurreko gogoetan plazaratzen huen bezala? Lehen hitzetik sinatuko nikenan hire iritzial!

Hizlari onak entzutea atse-gin omen dun... Arranopola, bai nik ere! Entzutekotan, hiz-lari ona entzutea hobe, txarra baino. Denok zekinagu, hik esan bezala, hizlari on batek hiregandik urrutieneko gaia ere gustagarri egin dezakeela, hiz-lari txar batek gustukoena hondatu dezakeen proportzio berean.

Gai hau aipatuta arreta beste honetara joaten zaidan: ahozkoari zein arreta gutxi eskaintzen diogun geure mundu moderno honetan. Duela gutxi, irakasle batzuekin gogoetan ari ginela, harrigarria dun aitortzen zutena: haur hezkuntzako etapan erabat ahozkotasuna lantzen dituen haurrekin gelan, gero lehen hezkuntzako lehen zikloan zerbait eusten zioten eta handik aurrera, berek aitortzen dutenez, gaurko irakaskuntza sistema osoa idatzizkoan oinarritzen dun unibertsitatetik irteten diren arte.

Baina, lasai, ez noan-eta zama guztia lehendik ere

Gaurko irakaskuntza sistema osoa idatzizkoan oinarritzen dun unibertsitatetik irteten diren arte.

zigortuegi ditugun irakasleen bizkar botatzera. Eredu ego-kiak behar dituzten gure gazteek eta horiek eskolan lantze-az gain etxean, herrian eta hedabideetan ere egon behar dituen derrigor.

Etxekoa erreferentzia bikaina dun eta eskura-eskura egon behar lukeena. Baina, horretarako, astia hartu beha-rra dinagu eritmo zoro honetan: arratsalde bat hartu eta aitonarekin edo amonarekin kontu kontari jardun. Horiek baino maisu-maistra hoberik, nekez!

Herrian ere baditun ereduak eta gugandik gertu egon daitezkeen. Nik gure inguruan dabiltzan bi aipatuko dizki-nat: Pakea Garmendia eta Joxemai Ormazabal.

Eta, azkenik bat natorren, Joxemari Apaolaza hizlari bikaina dun, bai horixe!

GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:

Alzaga, Arama, Itsasondo eta Legorretakoko udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

Goi
Goierriarra aldizkaria

Argitaratzailea:
Goierriko Hedabideak S.L:
Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:
goierritarra@goierrikohitza.info

Telefonoak:
Erredakzioa: 943 16 00 56
Publizitatea: 647 319 757
Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907
Lege gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Ziurrenera Internet errealitatearen eremua bera
ari da aldatzen, errealitatearen, denboraren
eta espazioaren gure kontzeptua.



Idurre Eskisabel

"Hori ez da ligatzea!" (edo Internet eta errealiteari buruzko zenbait gogoeta)

Hori ez da ligatzea!". Epai hori bota zuen duela zenbait egun lankide batek Internet bidez sortutako harremanei buruz ari ginela. "Hori ez da ligatzea, baizik eta oraingo mundu deshumanizatu honetan geure burua ustezko eta gezurrezko harremanen bidez engainatzea", segitu zuen. Ordu arte txantxa girokoa izan zen gure berriketa, baina puntu horretara iritsita serio jarri zen gure adiskidea. Kafea hartzeko tartea gehiegi luzatzen ari ginela aitzaki jarrita eten egin genuen hizketaldia.

Hala ere, burutik kendu ezinik ibili ditut egunotan lankide teknofoboaren hitzak; alegia, Internet bidez ehundutako harremanen nolakotasunei buruzko galderak. Eta, egia esateko, kontraesanen zurrumbilo lohitsuari sartu naute. Batetik, argi dut adiskidearen epaia exajeratua ez ezik ez dela zuzena. Hau da, gure gizartearen izaera gero indibidualistagoa gorabehera harremana zer den edo zer ez den, ligatzea zer edo zer ez, lotu diren pertsona horiek bakar-bakarrik erabaki dezaketela. "Ustezkoa" eta "gezurrezkoa" aipatu zituen lankideak Internet bidezko ligan baliogabetzeko, nolabait errealitatea esaten diogun horretatik kanpo eratzen delako, oraindik orain gure belaunaldikooi atzemanezina eta ukiezina gertatzen zaigun eremu birtualean —eta, beraz, hiztegiari kasu eginez gero, errealitate funtsik gabeko eremu itxurazkoan—.

Baina gure kontzientziaren egoerari erreparatuz gero horiek bezain ustezko eta gezurrezkoak izan daitezke goizeko ordu txikitik "errealitate" esaten diogun eta diskoteka edo taberna deitzen diren jokalekuetan gauzatutako lige asko. Izan ere, drogen eraginez (noski, alkohola jarri dut zerrendan lehena) giro eta ordu horietan errealitatearen ohiko ikuspegia aldatu xamartua izaten dugu gehienok, eta sarritan hor sortzen den harremanaren 'benetakotasuna', ba, enfin... Eguna eta burua argitzean beste errealitate bat ikusten da gehienetan. Baina gure adiskidearentzat hori ligatzea da, ez du zalantzan jartzen, denbora berean espazio bera partekatu baitute elkarrekin kateatu diren bi pertsona horiek.

Nik ez dut ezer horren kontra, ez ligatzeko modu horren, ez hori ligatzea dela baieztatzearen aurka. Esan dut, harremanaren nolakotasuna definitzea hartan lotu diren pertsonen soilik dago-kie, eta, ondorioz, ligeak iruditzen zaizkit guztiak, tabernakoak,

diskotekoak, lantokikoak, paperezko gutunen bidezkoak edo Internetekoak. Horrerraino, argi.

Dena den, onartzen dut neure bizipenetik abiatuta Internetek, sare sozialek, urduri jartzen nautela askotan. Oso urduri jartzen nau, esate baterako, facebooken jendeak parrandan, perretxiko biltzen, edo osaba-izeben urrezko bodetako bazkarian ateratako argazkiak jartzeak; jartzeak berak baino areago sarera igotzeko bizkortasunak: hain justu, hirugarren gintonica eDaten ari diren unerako parrandako irudiak sarean izateak, edo onddorik ederrena aurkitu eta bi minutura, edo izebak malako artean seme-alaben oroigarria jaso eta lau segundora. Halaber, oso urduri jartzen nau twitterrean jendeak etengabe "laneko bilera batean nago", "Stingen kontzertura bidean naiz", edo "Mikelekin gosaltzen ari naiz" bezalako gauzak jartzeak.

Adibidez, duela egun batzuk, bazkari batean, ekartzen zuten plater bakoitzari argazkia atera eta jaten hasi aurretik sarera igotzen zuen bat tokatu zitzaidan parean. "Hau ez dago burutik sano", esan nion isilpean aldameneko lagunari, "honek eta berak bezalakoek bizitza bizi ordeztu erretransmititu egiten dute. Ez dute bizipenik, eskaparate bat baino ez". Buruarekin baieztatu diskretua eginez eman zidan arrazoia ondokoak.

Konbentzita esan nuen hori guztia, baina ondo aztertuz gero, kontraesan galanta lehenago ligatzeari buruz agertutakoarekin. Izan ere, ligatzea zer den erabakitzea harreman zehatz horretan lotu diren pertsonen soilik badagokie, arrazoi gehiagoz pertsona bakoitzari dagokio bizitzea zer den erabakitzea, eta bizi esperientzia era batera edo bestera gorputzu eta sentitzea. Hau da, niri ulerkaitez egiten zaidan arren facebook eta twitterreko bizipenak bizipen izango dira, nire lurgaineko hauek bezain beste.

Ziurrenera Internet errealitatearen eremua bera ari da aldatzen, errealitatearen, denboraren eta espazioaren gure kontzeptua, eta iragan mendekooi oso nekeza —askori ezinezkoa— egiten zaigu aldaketa hori gure bizi esperientzian txukun txertatzea. Zer egingo diogu, ba, lehenago ere izan baitira halako iraultza kontzeptualak. Aldaketara egokitzea omen giza jendearen patua.

Ilargiaren faseen eragina

Ilargia, Lurraren satellite bakarra da. Beraien artean 384.400 km daude. Orbita eliptikoa du: distantzia txikiena 'perigeoa' 356.000 km-takoa da eta handiena 'apo-geoa' 406.000 km-takoa da.

Ilargia Lurretik lau modu desberdinetan ikus daiteke, hau da, ilargialdiak dira; Ilgora, Ilbera, Ilberri eta Ilbetea dute izena. Lehen aldetik laugarrenera, 27 egun, 7 ordu eta 43 minutu igarotzen dira. Ilargia beti aurpegi bera erakusten digu, aurpegi hurbila eta ezkutuan gelditzen dana, aurpegi iluna deitzen da.

Ilargiaren eragina antzina-tik ikasi eta ikusi da. Naturan, ilargiak mugitzen ditu itsasoak eta ozeanoak. Itsas-gorak eta itsas-beherak sortuz. Gizakiok, %80-85 ura garenaz, ilargiak badu ere gure gain eragina. Bai gorputzean, bai emozioetan. Erditze gehiago egoten dira ilargi betean, sua pizterakoan egurra ilberrian moztuta baldin badago ke gehiago sortzen da, depilatzerakoan edo ilea mozterakoan ileak, ilgoran indar gehiago hartzen du.

Honela, beste zenbait kasu daude, artikulua honetan pare adibide jarriko ditugu baino gehiago sakondu nahi duenari bukaeran liburu batzuk gomendatuko ditugu:

Ilargi-berrian

Landareei dagokionez

- Belar eta hosto txarrak kendu.
- Lurrak goldatu eta ongarritu.
- Belardiak ereiteko eta hosto borobileko zuhaitzak landatzeko momentu ona.



Gizakioei dagokionez

- Ilargi berrian meditatzea eta barne ezagutzarako garai ona da. Janari garbia jateko ere momentu ona izando litzateke.

Ilgoran

Landareei dagokionez

- Hondarrezko lurrak lantzeko momentu egokia da.
- Landareak inausi eta ongarrizko garai ona da.
- Loretan dauden landareak ureztatzeko ez da momentu ona.

Gizakioei dagokionez

- Pertsona hazteko eta hedatzeko egoera ona da. Ekintzarako momentu ona da. Ereindako hazia hedatzeko eta zabaltzeko momentu egokia da.

Ilberan

Landareei dagokionez

- Loreak dituzten landareak azpitik ureztatzeko momentu egokia da.
- Intsektuak, belarrak eta hosto txarrak kentzeko garai ona da.

- Birlandatze eta ongarrizko momentu egokia da.

Gizakioei dagokionez

- Pentsatzeko eta introspektzioa egiteko garai ona da.
- Soberan ditugun gauzak, botatzeko garai ona; koipeak, likidoak, toxinak edo etxeko trasteak.

Ilbetean

Landareei dagokionez

- Biltzeko momentu egokia da.
- Landareak ureztatzeko eta ongarrizko garai egokia da.
- Barruko landareak birlandatze momentu ona da.

Gizakioei dagokionez

- Emozioak eta animoak pilpilean daude. Espresioaren goren-unea da. Kirola egiteko momento egokia.

Dena den landatzeko garaian, badaude kontuan hartu behar diren beste faktore garrantzitsu batzuk: urtarok, Lurra, hezetasuna, eguraldia eta abar. Gai honi buruz gehiago jakin nahi dutenek, bai interneten, bai Maria Thunen "Calendario Lunar" edo "Agricultura Biodinámica" begiratu dezakete.

Iturburu: Wikipedia.

JAKIN BEHARREKOAK

Zementua CO₂ isuri gabe ekoizteko teknika

garatu du Tecnaliak. Zentral termikoen hondakin solidoetaz baliatuz, kareharri kiskaliaren beharra saihesten da. Zementu--ekoizpenak ingurumenari eragiten dizkion kalteak txikitzea da metodo berriaren helburua. Ia % 100 murrizten da CO₂ isuriak, hondakinak birziklatzen dira eta energi-kontsumoa % 50 murriztu daiteke.

WEBGUNEAK

<http://www.iwalktoschool.org/> Orrialde honetan eskolara oinez joatea bultzatzen da, nazioarte mailan diren ekimenen berri emanez eta baita baliabideak eskainiz.

IRRATSAIOA

'Norteko ferrokarrila' irratseaioan, zientzia dibulgazioa eskaintzen da. Guillermo Roa kimikariaren eta komunikatzailearen eskutik. Astearteetan, 21:00etan entzun daiteke, Euskadi Irratiaren sintonian. Eta interneten: <http://norteko.elhuyar.org/>



Landarlan taldeak egindako orrialdea. Taldean parte hartu, gairen bat aportatu edo albisteen bat bidali nahi baduzu: 943161244 landarlan@yahoo.es

Ilargiak badu ere gure gain eragina.

Bai gorputzean, bai emozioetan.

Denetik (XLIII)

Maizpide euskaltea


Hamaika aldiz hitz egin dugu txoko honetan gaztelaniak Etxepareren hizkuntzan duen eraginaren gainean... baina gaurko honek muga guztiak gainditzen ditu! Gure gaztetxoek ondorengo adibideetan jarri ditugun bezalakoak hitzetik hortzera esateko joera hartu dute aspalditxotik, eta 'gure euskerea' txukunduko badugu, lehenago edo geroago, horri akabera jarri beharrean gara! Hona hemen esaldi traketsen 'zerrendatxoak':

- ✗ *Ze ba esan zizun hori, Garazi? (desegokia)*
- ✗ *Hasta ke esan zidan... ez zen ezer ez gertatu! (desegokia)*
- ✗ *Da mutil bat superguapoa, Alaitz! (desegokia)*
- ✗ *Zergatik esan diodan? Zergatik bai! (desegokia)*
- ✗ *Zergatik esan diodan? Ze ba hori merezi zuen! (desegokia)*
- ✗ *Si ez du hori esan! (desegokia)*
- ✗ *Begira egin didazuna, Jon! (desegokia)*
- ✗ *Pues klaro esan niola! (desegokia)*
- ✗ *Ez da Donostiara joango, porke ikasi beharra dauke! (desegokia)*
- ✗ *Herri borretako neskak joaten dira en plan... (desegokia)*
- ✗ *Pues Amaiarekin bitz egitera noa! (desegokia)*
- ✗ *Benga, Eneko! Eske etxera joan behar dugu! (desegokia)*
- ✗ *Fisikako azterketa "kriston" (kristoren) ondo egin diat, Juanan! (desegokia)*
- ✗ *Euskara irakaslea "kriston" jatorra da, Lutxi! (desegokia)*

'Arrisksutsuenak', nolabait esatearren, **si** eta **ze ba** direlakoan gaude... **en plan** bitxi hori ahaztu gabe! Duela hogeitau urte pentsaezina izango zen kalean horrelakorik entzutea, baina une honetan zuzentzen hasi beste aukerarik ez dugu. Ea goiko zerrendaren ondorengo 'txukunketak' laguntzen digun:

- ✓ *Zergatik esan zizun hori, Garazi? (egokia)*
- ✓ *Zer dela eta esan zizun hori, Garazi? (egokia)*
- ✓ *Esan zidan arte, ez zen ezer gertatu! (egokia)*
- ✓ *Jateko moduko mutila dun, Alaitz! (egokia)*
- ✓ *Mutil ezin dotoreagoa da, Alaitz! (egokia)*
- ✓ *Zergatik esan diodan? "Haatik"! Hargatik. (egokia)*
- ✓ *Zergatik esan diodan? Besterik merezi ez zuelako! (egokia)*
- ✓ *Ez du hori esan eta! (egokia)*
- ✓ *Hara zer egin didazun, Jon! (egokia)*
- ✓ *Bada, horixe esan niola! (egokia)*
- ✓ *Ez da Donostiara joango, ikasi beharra du-eta! (egokia)*
- ✓ *Ez dut oso garbi berri borretako neskak nola joaten diren, arropa gutxirekin edo... (egokia)*
- ✓ *Bada, Amaiarekin hitz egingo dut! (egokia)*
- ✓ *Tira, Eneko! Etxera joan behar diagu! (egokia)*
- ✓ *Fisikako azterketa primeran / dotore baino dotoreago / bikain egin diat, Juanan! (egokia)*
- ✓ *Euskara irakaslea oso jatorra / ezin jatorragoa da, Lutxi! (egokia)*

Hi, Leti, anaiari mimo gutxiago, eta jar iezadan Patxin eta Potxinen bideoa, ezin barregarriagoa da-eta!



Gure Xanti, gauzak eskatzeko garaian, ezin argiagoa dela ezin ukatu!

ZUZENDU, BEHAR IZANEZ GERO...

1. Benga, Leti, jarri Patxin eta Potxinen bideoa, ze ba oso guay da!
2. Tira, Leti, besoetan daramanana pixka batean utzi ezan sehaskan, Xantik ondotoxo merezi du eta!
3. Bada... jarriko diat, pottoko!
4. Letik kristoren / egundoko ahalegina egin behar du bi mutikoak asetzeko!

OHARRA: lehena ez da zuzena, dedio! Erreparatu Xanti mutikoak esandakoari!



kutxa



Juan Kruz Mendizabal, Gipuzkoako bikarioa:

“Gotzainarekin lana egin behar dugu, eskuz esku, eta hobe barruan egotea, kanpoan egotea baino”



Kargu berria duzu, Gipuzkoako bikarioa zara.

Kargua eta karga. Bergara, Antzuola eta Elosuan, lau urte egin ditut. Orain berriz ere Donostia aldera etorri naiz. Donostia eza-guna nuen. 8-10 urtez bizi izan nintzen eta ondo ezagutzen dut.

Ezustean harrapatu al zintuen izendapenak?

Bai. Batetik, ez genuelako pentsatzen, Gotzainaren izendapenaren prozesuarekin ados ez geundela sinatu genuenotatik, Gotzainak aukeratuko zuenik. Asmoa esan zidanean, pentsatu nuen interesgarria izango zela, gure iritzi iritsiarazteko, presentzia hor edukitzea. Ez nuen sekula pentsatuko horien arten ni egongo nintzenik. Gotzainak eskatu zidanean, gehiegi pentsatu gabe, baiezkoa esan nuen. Nik uste dut, gauza inportanteak, pentsatu egin behar direla, baina gehiegi ez. Bestela ez dira burutzen. Adibidea hortxe dago, pake prozesua. Askotan buelta gehiegi emanda, ez gara iristen nahi dugun tokira. Baina baiezkoa eman nion.

Munillaren izendapenak zalaparta handia sortu zuen.

Zuetako batzuk ere ez zeundeten ados.

Moduarekin ez geunden ados. Nik uste dut, modu pertsonal batean erortzea, sinpleegia dela. Hasiko bagina epaitzen, niri nor erortzen zaidan hobeto eta nor den nire sokakoa, pentsatu beharko genuke, ni ere beharbada, ez naizela guztien gustukoa izango. Prozesua zen salatzen zena. Nire lanaren haria horixe da: Gotzainarekin lana egin behar dugu, eskuz esku, eta hobe barruan egotea, kanpoan egotea baino.

Zein lan egin behar izaten du bikarioak?

Zuzen-zuzenean, herrietako, parroketako kristau elkarteetako errealitatea eta pultsoa hartuko duena izango naiz. Batetik, ego-

era hori zabaltzeko eta adierazteko nola gauden, eta nola dau-den kristau elkarteak. Eta bestetik baita ere, kristau elkarten gogoia, tentsioa, egoera ere zuzenean agertzea Gotzainari eta Elizbarrutiari. Beti egoten da deskonposizioa erakundearen eta errealitatearen artean. Ni izango nintzateke, egoera horren tala-drina. Kate lana, zubi lana egiten dut.

Zer moduzko egoera ari zara aurkitzen?

Nik uste dut, paradoxa baten aurrean gaudela. Gure kristau elkarteak, ahulak gaude, adinez aurrera joan garelako, bai apai-zak eta bai laikoak. Baina era berean, ahuldade horretan, harri-garria da egunerokoari nola erantzuten zaion.

Pentsatu ezazu, 78 urteko apaiz bat, urtean, 120 hileta ematen ari dela. Horrek esan nahi du, 120 familiarekin egon dela. 120 hileta edo sermoi prestatu dituela. Ospakizunak antolatu dituela. Haurrekin harremana duela, katekesia antolatzen ari dela. Karitaseko egoeraz ere adi dagoela. Espetxeratuekiko hurbiltasuna agertzen duela Kristau elkarteak. Gaixoak bisitatzen dituela... Nik uste dut, erakunde edo antolaketa oso-oso gutxi egongo direla, bere ahuldadean, hainbeste tekla ikutzen ditue-na. Niri horrek adierazten dit, izugarritzko errespetua eta mires-mena, Parrokietan lanean ari den jendearekiko. Gure Parrokietan, gure herri txikietan, zein leialtasunez, ari diren! Paradoxa hori: nekea eta aldi berean leialtasuna.

Adina aipatu izan duzu. Zuk gazteekin lan asko egiten duzu. Gazteria sailaren arduradun izan zaitugu. Gazteen artean zer aurkitzen duzu?

Arritmia bat dago. Izugarria. Bi abiaturak ezberdinak dira. Batetik gazteria hurbildu nahi dugu, baina era berean, parado-

“Sinisten du oraingo bake prozesuan”

Bake prozesua aipatu duzu behin berriz. Elizak zein paper jokatu beharko luke?

Une honetan iruditzen zait, Elizak egin duela egin behar zuen zerbitzua. Gaur egun, nik uste dut, erakunde politikoen esku dagoela. Hain zuzen ere, Gobernu eta ETArekin arteko eskuhartzearekin erabaki beharko dute zer egin. Eta ondoren, nik uste dut, berriro, Elizak aurrez egin duen zerbitzua, terrena prestatzen joatea, adiskidetze prozesuak irekitzea... egin beharko dela. Ondoren geldituko den lanean, zerbitzua eskaini beharko du Elizak. Momentu honetan, nik uste dut Elizak eskaini dezakeen bitartekaritza oso konplikatu dela. Euskal Herriko Gotzainek gainera esan dute ez zaiela bitartekaritza eskatu. Guk, inork eskatzen ez diguten lekuan ez dugu muturrik sartuko.

Bake prozesua bideratzen denean, galdetu beharko dugu: zergatik iritsi gara egoera horretara? Horren ondoren zer egin beharko dugu? Gaur Maixabel Lasak esaten du, bere senarra hil zuenak ere aukera bat baduela. Nik uste dut, aukera horiek eman egin behar direla etengabe, aspertu gabe. Aukera berriak eman behar dira eta aukera berri horiei eusteko, Elizak, maisu-lana edo esperientziaren eskola duenez, eskaini dezake adiskidetze prozesuak bideratzea. Barkamena eman eta eskatzen duen erakunde bakarra gu gara. Zenbat erakunde ikusi ditugu, sekula barkamena eskatu ez duenik? Gizarte honetan, azken 50 urteotan, inork ez du barkamenik eskatu. Elizak, askotan aho txikiz, baina eskatu du barkamena. Niretzat gakoetariko bat izango da, adiskidetzea, barkamen prozesu batetik abiatzea.

Nahi duenak hor izango du Eliza. Elizaren ateak ez dira sekula itxiko. Eta are gutxiago, bake prozesuan zerbitzu bat eskaintzen bazaio. Zerbitzu horretan argazkian atera behar du? Nik uste dut ezetz. Zerbitzu hori, ixila izan beharko da. Denok dakigu, momentu batean bake prozesu batean sartzen baldin bagara, interes elektoralak atera nahiko dituztela, ia denek. Nik uste dut Elizak hortik erretiratu egin beharko duela, bere zerbitzua eskaini, ixilean, begibistan edo eskatzen zaion moduan, baina inolako protagonismorik gabe.

Aurreko bake prozesuak, Loiola izan zen kokalekua.

Loiolan gertatu zenaren aktak nork dauzka? Adibidez, pentsa ezazu, Loiolako aktak Elizak gordeak baldin baditu, zein eskusiba eskainiko lukeen. Gaur egun, eskusiba guztiak saldu egiten dira. Egiak eta gezurrak saldu egiten dira eskusiba moduan. Maila horretan, Elizak ez du protagonismorik izan

nahi. Eta ez du eduki. Loiolan gertatu zena, niretzat, izan zitekeen lorpen baten porrot izugarria izan zen eta penaz, Eliza erretiratu behar izan zen. Gaur egun, nik dakidala behintzat, ez zaio eskatu horrelako bitartekaritza bat. Baina norbaitek eskatzen badigu mahai batean jartzeko, jarriko gara. Norbaitek eskatzen badigu, gure ahalegina edo dirua jartzeko, jarriko dugu.

Sinisten al duzu oraingo bake prozesuan?

Nik bai. Ziur nago, konbentzita nago, oraingoan baietz. Batetik, ia gehiago ezin dugulako. Ezin dugu beste belaunaldi bat itxoin, egoera hau konpontzeko. Era berean ere, ez dugu beldurrik izan behar, benetan, galdetzeko, zergatik iritsi garen edo iritsi ginen egoera honetara. Zergatik ez ginen adostasun batera iritsi. Zergatik pertsona batzuk, pentsatu zuten, sinistu zuten eta erabaki zuten, armen bidez konponbidea iritsiko zela herri honetara? Pena da, bizikizun, esperientzia honetara iritsi behar izatea, eskarmentu hau edukitzeko, hildako asko izan ondoren. Edo beste era batera galdetuta, zer egin behar dugu, berriro erru honetara ez iristeko? Galdera horri erantzun egin behar zaio, bestela, erru berdinetan eroriko gara.

Loiolan ez zen posible izan, beharbadu Arantzazun...

Eta Gasteizko Parlamentuan nahi badute ere bai. Baina eskusiba inork ez du saldu behar. Egin behar dena egin dezatela, ezkutuan, edo begibistan. Nire iritiz, ezkutuan edo diskrezioz egin behar da ondo egiteko. Eta gero ospatuko dugu ospatu behar dena. Dena den, ospatzeko baino gehiago izango da, eraikitzeke dauden hausturak eta zauriak sendatzea. Etengabeko lana izango da. Adiskidetzea, zauriak sendatzea izango da.

“Aukera berriak eman behar dira eta aukera berri horiei eusteko, Elizak, esperientzia duenez, eskaini dezake adiskidetze prozesuak bideratzea”



Iñauti Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO 602 Zbk. KOLEGIATUA

HAURREN ETA HELDUEN ODONTOLOGIA OROKORRA
RADIOGRAFIA PANORAMIKOA ETA ZEFALOMETRIKOA
ODONTOLOGIA ESTETIKOA (ZURIKETA)
KIRURGIA
ORTODONTZIA - PERIODONTZIA


JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28



ZEGAMA OKINDEGIA
Eskuz egindako ogi naturala
Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 ZEGAMA

SALMENTA PUNTUAK:
Beasain: Oskarbi, Osina, Natxo dietetika, Ekilore. **Ordizia:** Sabino, Muno, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viana eta Ainhoa dietetika. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Segura:** Erosle. **Idiazabal:** Joxan harategia. **Ormaiztegi:** Inaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda dendak, Centro 100. **Urretxu:** Dia. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza eta Patxo.

ARANDIA GARAJEA



LADA SSANGYONG

Autoen konponketa

N-1, z/g Iurre Auzoa
OLABERRIA
☎ 943 88 09 47



xikoki, gu ez gara beraiengana hurbiltzen. Ni beti oso lotsaga-bea izan naiz eta nik uste dut gazteen mundura iristeko ahalegin handia egin behar dugula. Gazteak esaten dudanean, ez ditut nerabeak bakarrik aipatzen. Gazteak esaten dudanean, nire adineko jendea aipatu nahi dut.

Hor Elizak askotan aipatu du urrunduak edo urrutiratuak terminoa, niri ez dit grazia handirik egiten. Elizak pentsatzen du askotan, jendea urrundu dela beraiengandik eta ez dugu auto-kritikarik egiten. Guk geuk eta geure erakundeak, geure antolaketak, geure eguneroko bizitza, urrundu egin da benetan gazteen errealitatetik. Erronka potoloa dago gazteen munduan. Saiatuz gero, ez da erraza, eta saiatu gabe, ez dago ezer ere.

Zerk sortu du urruntze hori?

Gazteak, beti, protagonismo bat izan du. Eta Elizak, esparru askotan, gazteari protagonismoa jan dio. Bai sendotzako taldeetan, bai aisialdiko taldeetan... Goierrin astialdiko taldeak indartsuak izan ziren. Ordizian Balatakaklin, Lazkaon Zawopi, Beasainen Txibiltxof eta Ormaiztegin Bator. Eta talde horiek desagertu egin dira. Zergatik desagertu dira? Batetik, gazteari protagonismoa eman arren, lekukorik ez dugulako aurkitu. Ez diegu lekukorik eman eta ez dugu jarraipenik aurkitu.

Elizak gazteari eman dio protagonismoa, baina Kristau Elkartearen barruan ez die benetako ardurarik eman. Gazteak, bere ardurak bere gain hartzen ez dituenean, nekatu egiten da.

Baita ere esango nuke, gazteari ez zaiola erakargarria egiten Eliza erakundeak. Ikusten ditu desoreka handiak, desegokitasun asko eta askotan ez da Elizan ondo sentitzen.

Horregatik nik uste, badaudela hiru gako, gazteen munduan landu beharrekoak, etorri ala ez. Bat, harrera hurbila, hurbil jokatu behar dugu. Bi, protagonismoa eman behar diegu. Eta hiru, ardurak eman behar dizkiegu, beldurrik gabe. Hori eskainiz gero, gaztea egongo da; bestela ez. Egon naizen toki guztietan hori egin dute eta funtzionatzen du.

Gipuzkoako Elizbarrutian, talde gaztea zaudete orain.

Gotzaina da zaharrena. 49 urte ditu. Nik, 47 eta beste bikarioak 41. Gazteak gara. Batzuk esaten dute, adinez bakarrik garela gazteak. Ideietan ez garela gazteak. Hor ere nabarmendu behar dena da, Elizan, gaur egun ditugun erroketari erantzuteko, sasoi behar dela. Adineko apaiz bati edo laiko bati, esaiozu, dena hankaz gora jarri behar dugula, eraldatu egin behar garela... Egia da baita ere, Elizan berez, gerontokrazia dagoela.

Gizartearen eta Elizaren arteko etena aipatzen ari zara.

Elizak ez al du jakin gizartera egokitzen?

Beti zailtasunak eduki ditu. Aitortu beharra daukagu, Elizak aldarrikatzen dituen baloreak eta ebanjelioa bera, askotan, gizartearekin ez doazela bat. Ez nuke esango kontrakulturala denik. Baina askotan gertatzen da, gizarteak markatzen dituen pautetatik kanpora dagoela.

Adibide bat jarriko dut: Elizak, neurrikerik gabeko barkamena eskatzen du eta momentu honetan, bake prozesuan zintzilik geldituko den haria, adiskidetzeara izango da. Jendea ez dio graziaz egiten, bateko eta besteko biktimen artean, min handiak eta zauri berriak sortuko baititu. Horrek adierazten duena da, pake prozesua ez dela izango armak uztea bakarrik. Oinarrian beste zerbait eskaini beharko du.

Elizak horretaz hitz egiten duenean, askotan, kontrakulturala da. Kontrakulturala da eta askotan, ez da politikoki zuzena bezala ulertzen. Are gehiago, askotan Aita Santuak aldarrikatzen dituen gauzak askotan iruditzen zaizkit kontrakulturalak eta ahistorikoak.

Gustatuko litzaidake gizartearekin sintonia handiago batean egoten da. Baina beti onartu behar genuke, Elizak beti edukiko duela proposamen desegoki bat jendearen aurrean eta beti ezin dugula kulturatik kanpo egon. Ezin dugu herriarengandik at egon. Nik uste dut, oreka hori egin beharko dugula.

Hala ere, herriaren sufrimendutik eta herriaren pozaldietatik urrun dagoen Elizak beldurra ematen dit. Beldur handia. Izan ere, izango litzateke, herriak hitz egingo luke

**Jendea hoztu egin da
erlijioarekiko, egunerko bizitzan.
Estualdietan, edo heriotzaren
aurrean, berriro sortzen da
transzendentziaren, edo
erlijioaren edo fedearen galdera.**



bere txokotik, bere zulotik, bere sakristiatik, edo bere palazio-tik... Eta nik uste dut herriarekin bat egon behar dugula, herriari lagunduz, hezi eta hazi egin behar dugula, elkarrekin.

Erlijio aniztasuna daukagu gaur egun, munduko txoko ezberdinetatik hainbat eta hainbat euskal herritar berri etorri baitira. Zein harreman duzue erlijio ezberdinekin?

Guk Elizbarrutian, kristauekin izan ditugu harremanak, kristau ortodoxoekin batik bat. Ekainean egin dugu, Errumaniako Eliza ortodoxoarekin, Martutenen, partekatzeko hitzarmen bat. Maila horretan, pozik aurkitzen gara. Nik uste dut, elkarren arteko errespetua adierazten duela. Errespetua eta balorazioa.

Neure kasa harremana eduki dut, kristau ebangelikoekin. Hemengo Artzainekin izan gara hainbat ospakizunetan. Harremana nahiko estua izan da. Momentu honetan, elkarren artean, oso altxor polit bat daukagu: eliza kristauak, ebangelikoak nahiz ortodoxoak, lortu genuen orain dela urte batzuk, elkarrekin adostea, Elizen arteko Biblia, itzulpen bat. Eta guk euskaldunok erabiltzen dugun Biblia, Biblia interkonfesionala da. Hori izugarritzko aurrerapena da.

Nik uste dut, guk baloratu behar dugula, aniztasun kultural batean gaudela eta aniztasun kultural horretan, aniztasun erlijioso dagoela. Jendearen esparrua ireki du horrek, baina askotan gertatzen da, aukeratzeko gehiago izateagatik, ez dugula hobeto aukeratzeko, edo aukeratzeko dugunik. Ikusten dugu, arazoa, ez dela erlijioen aniztasuna, baizik eta, indiferentzia. Jendea hoztu egin da erlijioarekiko, bere eguneroko bizitzan. Estualdietan, edo heriotzaren aurrean, berriro sortzen da transzendentziaren, edo erlijioaren edo fedearen galdera. Baina eguneroko bizitzak irentsi egiten digu. Nik uste dut hor, arritmia daukagula. Gustatuko litzaidukeela gehiago sakontzea. Orain hizketan ari garen bezala, modu informal batean, ikaragarri gustatzen zaie hitz egitea, sakontzea. Baina hortik sakontasun batera pasatzea eta jarraipen bat egitea, eta jarraipen horrek bustitzea, inplikatzeko eta konprometitzea bada, hori beste kontu bat da. Baina nik uste dut, jendeak ez diola uko egin transzendentziaren galderari. Jendea, transzendentziaren bila badabil. Ez duena onartzen da, transzendentziari azken urte hauetan Elizak eman dizkien moduak. Jendea Jainkoaren bila badabil, jendeak Jainkoaren bilaren ukapenik ez du egiten. Ez da ere Jesusekiko. Kontua, bitartekaria da. Eta kontua da, bitartekari horiek jarri ditugun baliabideak.

“Bokazioa oso garesti dago, betikokotasunak beldurtzen du jendea”

Bokazioa garesti al dago gaur egun?

Bai!! Gaur egungo pertsonoi, beldurra ematen digu betikotasunak. Ezkontzarako ere bai. Jendeari esaten diozunean, apaiz betirako. Betirako? Bai, ni betirako egin naiz apaiz. Nik uste dut betirakotasun horrek jendea atzeratzen duela.

Bestalde, gaur egun, Elizak gizartean daukan oihartzuna eta prestigioa, pixka bat lur jota dago. Horrek ez du erakartzen. Gazte bat ez da apuntatuko, etsaituta eta desprestigituta dagoen erakunde batean. Kostatu egiten zaio.

Era berean, apaizgoa edo bizitza erlijiosoa, ukapen bat bezala ulertzen da, hartzen ditugun baloreak baino gehiago. Beste elementu bat da hori.

Beste elementu bat izan liteke, bokazioa ez dagoela momentu onenean. Beharbada galdetu beharko litzateke, maisutarako bokazioa nola dagoen, edo ama edo aita izateko bokazioa nola dagoen, nola dagoen kristau bokazioa...

Bokazioaren konponbidea zein da? Dudarik gabe, apaiz bokaziorako lana egiten jarraitzea, etengabe. Nik uste dut, Elizak, apaizik gabe ez duela asko iraungo. Bestetik, laikoaren partehartzea sustatu egin behar dela, behin betikoz, fundamentuz. Eta azkenik, inolako lotsarik gabe, eta inolako beldurrik gabe, ateak ireki egin beharko ditugu, lanerako ireki ditugun bezala. Askotan zenbat lan egiten ari diren etorkinak! Askotan guk alde batera utzitako lanak. Egia esateko ez zait gustatzen munduari mugak jartzea. Muga gehiegi daukagu jarrita. Ni neu, euskalduna sentiturik, gustatuko litzaidake, Euskal Herriko mugak zehaztuagoak egotea. Baina era berean ere gustatuko litzaidake, munduko muga politikoak, hain hertsia ez izatea. Hori bai, etorkinek, gutxieneko baldintza batzuk bete beharko dituzte.

Zein baldintza dira horiek?

Kanpotik etortzen badira, bokaziodun, apaiz, erlijioso edo erlijiosa batzuk, gurekin esperientzia bat egin nahian, batetik gure izaera onartu beharko dute, hau ez dela Albacete. Bestetik, gure hizkuntza, euskara ikasi beharko dute eta gure hitz egiteko modua ere ulertu beharko dute. Eta gero, lana egin.

Oraintxe badauzkagu hiru esperientzia oso interesgarri eta aipatu nahiko nituzke. Bat, Kolonbiatik etorri zaizkigu, bi apaizgai. Bere familia etorria zegoen aurretik eta orain etorri eta gurekin bat egin dute. Bat iritsi zenean, lehendabiziko ospakizunera joan eta Gure Aita buruz zekien abesti eta guzti. Horixe bera eskatuko nieke, hainbat urtetan, gai izan ez diren fededun edo apaiz batzuei, euskaraz ikasteko ahalgori.

Beste bat, Afrikatik etorri zaigu. Han ezin izan da apaiztu eta hemen dago gure artean. Oso gustura dago. Beste bat, kaputxino bat, Veneziatik etorri da. Errenterian dago, gazteekin lanean. Bere helburua da, gauean ibiltzen diren gazteekin lana egitea. Kallean dabilzan aterperik gabekoekin ere lanean ari da.

Baina niri gustatuko litzaidake, gure izaera eta nortasuna galdu gabe, mugarik gabeko herria eta mugarik eta mugarririk gabeko Eliza bat izatea. Are gehiago, premia larria dugun garai honetan.



Baina egia da baita ere, transzendentziara edo misteriora jotzeko, tresna batzuk behar ditugula. Hauek ez dira onenak izango, baina hauek gabe, ez dugu asmatu beste batzuk bilatzen. Niri iruditzen zait, XXI. mende honetan, erronka handi bat daukagula erlijioen arteko elkarrizketan. Baina noski, bai Eliza Katolikoaren aldetik eta bai beste erlijioen aldetik, fundamentalismoak alde batera utziz. Bestela ez dugu ezer egiten. Inor uxatu gabe, inor kondenatu gabe, guztiak onartzuz.

Urruti al dago emakumezkoa apaiz ikusiko dugun eguna?
Nik uste dut baietz. Gai horri buruz hitz egitea asko gustatzen zait, baina beti gauza bat garbi edukita. Adibidez, Lurraren beroketaren inguruan, nik neure ekintzak egingo ditut eta saiatuko naiz ahalik eta gehien oinez ibiltzen, saiatuko naiz behar den bezala berziklatzen. Hitz egingo dut, baina egiten eta hitz egiten dudanaren artean, izugarritzko aldea dagoela onartzen dut, batez ere Kiotoko Protokoloko erabakietan ni ez naizelako egon.

Gai honetan ere, horrelako zerbait gertatzen zait. Iruditzen zait, legezkoa dela eta eskubide osoa izan beharko lukeela emakumearen parte hartzeak eta emakumearen promozioa erabatekoa izan behar duela Elizaren barnean, Elizaren kanpoan ere hainbat esparrutan, emakumeak, zegozkion eskubideak legez eta eskubide osoz hartu dituen bezala. Ez da horrela gertatzen ari gure Eliza barruan eta gustatuko litzaidake gehiago parte hartzea. Orduan, nire eguneroko ahaleginetan saiatuko naiz, emakumearen partehartzea suspertzen, esparru sinpleenetik nire erabaki garrantzitsuetara, jakinik emakumearen apaizgoaren partida ez dela nire frontoian jokatzen, baizik eta Kioton eta kasu honetan, Erroman.

“Frontoi zaharra oso maitea dut”

Ormaiztegi festetara joaten al zara? Zer gustatzen zaizu gehiena?

Aitortu beharra daukat, azkeneko urteetan, kanpoan ibili naitenez, ez dudala San Andresetan Ormaiztegin egoteko aukera izan. Baina etxetik kanpora 26 urte daramazkit eta 26 urte hauetan sarri joan naiz, San Andres bezperan, koadrilarekin afaltzera. San Andres Egunean gustatzen zait, meza nagusian egoten. Hor gozatu egiten dut.

Ormaiztegi txoko bat:

Oso maitea dut frontoi zaharra. Ikastolan ikasi nuen eta hor zegoen frontoi zaharra, bainuetxeko tenis pista (guk tenisa zer zen ere ez genekien) eta bainuetxea, gure ikastola izan zena. Nik beti frontoi zaharra oso maitea izan dut. Batetik, erreka aldamenean zegoelako, eta Eztandan ikasi genuelako igeri egiten. Inguru horretan gure jolasak egiten genituelako. Inguruko basotxo batean, bizpahiru txabola egin genituelako. Garai hartan, Jaunaren graziaz, ez zegoen game boy eta telebistarik, eta guk uda osoa kalean pasatzen genuen eta ez ginen aspertzen. Eta, presan buruz botatzen ginen, hura olinpikoa zen.

Apaiz izango ez bazina...

Apaiz izango ez banintz, bizimodua ez dakit aterako nukeen, baina, musika asko gustatzen zait, sukaldaritza ere bai, kaleko lanarekin zerikusia duen guztia gustuko izango nuke. Dendari, erizain, kale garbitzaile, kale hezitzaile, politika mundua gustatzen zait... jendearekin giza harremana daukan guztia gustatzen zait. Erizaina ere gustukoa izango nuke, maisu ere bai... Guztietan ibili naiz saltseatzen, guztietan soldatarik irabazi gabe, baina bizimodua aterako nuke nolabait.

Zein musika tresna jotzen duzu?

Akordeoa, panderoa eta gitarra. Nik esaten dut, neronek enpresa bat sortuko nukeela. Izan ere, askotan, ezkontza ospatu, argazkilaritza ere gustatzen zait, neronek musika prestatu eta catering batekin ere zerbitzatuko nuke... Asmatuko nuke.

Batzuk esaten dute, apaiz izango ez balira, ez luketeela asmatuko. Beharbada, hemendik urte batzutara, beste era batera lan egiteko esango digu Elizak. Eguneroko bizitzan beharbada, familia bat izanez, beste ogibide baten bidez, arratsaldeak apaiz edo ministeritzan beste modu batean jorratuz. Nire bizitzako ordu eta egun guztiak, apaiz bizitzan, ministeritzan burubelarri nago baina baditut beste izaera batzuk eta beste joera batzuk, eta hortxe ere bizimodua aterako nuke, inongo lotsarik gabe.

Zaletasun bat:

Zinea. Oso zinezalea naiz. Musika ere gustuko dut. Kalean atzera aurrera ibiltzea ere bai. Oso asfaltozalea naiz. Mendian ondo moldatzen naiz, baina aspertu egiten naiz. Pertsonak behar ditut. Bi kale aukeratu behar baditut, jende gehien dabilen tokitik joango naiz.

Amets bat:

Oso hurbila dago. Nik uste dut Euskal herrian, noizbait, oinarritzko bake bat lortuko dugula, elkarren artean ulertzen hasteko moduan. Eta mahai berean eseriko garela, ideia diferentek edukirik arren, herritar sentitzen garen pertsonak. Amets hori oso hurbila dago. Gertatzen dena da, hori iristen denean, beste bat eraikiko dudala. Beraz, hemendik 8 hilabetera galdetuiezaidazu hurrengo ametsa zein izango den.

+ Goi

SAN ANDRES JAIK ORMAIZTEGIN

Goierritarra gehigarria 391. zenbakiarekin banatua



ARRANDEGIA
JOSETXO

JOSETXO ARRANDEGIA
ARRAINAK ETA MARISKOAK

☎ 943 161 366
San Andres, 31 ORMAIZTEGI




CITROËN

Garaje
ETXE-AZPI S.L.

*San Andres jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!*

☎ 943 88 10 61 - 943 88 60 58



E-mail: etxe_azpi@telefonica.net

ORMAIZTEGI

Azaroak 18, osteguna:

16:00etan: Puntu txapelketa jubilatuen elkartean.

Azaroak 19, ostirala:

16:00etan: Toka, bote eta igel txapelketak jubilatuen elkartean.

23:00etan: Kontzertuak, txosnetako karpan: D-Pintxos, Skapando eta Potemkin. O.G.A laguntzaz antolatuta.

Azaroak 20, larunbata: Eleganteen eguna:

12:00etan: Lagun taldeen bilkura eleganteen eguna ospatzeko.

14:00etan: Eleganteen bazkaria.

Bazkal ondoren: Trikitilariak alaitutako giroa.

Ondoren: Herritarrentzat mus txapelketa Zubipe kiroldegian.

16:00etan: Mus txapelketa jubilatuen elkartean.

16:30ean: Zumalakarregi



Museoak antolatuta haurrentzako ginkana.

23:00etan: Unsain taldearekin dantzaldia herriko plazan.

Azaroak 22, igandea:

11:00etan: XVII. Artisau erakusketa herriko enparantzian.

12:00etan: Emakume

proba, Kutxaren ondoan.

500 kiloko harriarekin 20 minututan 8 neska marka hausten saiaturko dira.

12:30ean: Meza nagusia.

Ondoren: Aintziñe gozotegiaren eta Elozegi ardotegiaren eskutik jakiak eta edariak dastatzeko aukera.

19:00etan: Pirritx eta Porrotx pailazoen 'Ongi etorri Pupu eta Lore' ikuskizun berria, Zubipe kiroldegian.

Azaroak 26, ostirala:

18:00etan: Ikurrina altxatzea eta suzieren jaurtiketa jaiei hasiera emanez, buruhandiekin, herriko plazan.

Txindata musika eskolako trikitilari taldeak alaituriko giroan.

19:00etan: 'Eskubide guztiak guztientzat' kontzertua.

23:00etan: Kontzertuak, txosnetako karpan: Emon eta Egurra ta Kitto. O.G.A-ren laguntzaz antolatuta.



Ormaiztegiko Udalaren izenean San Andres jai zoriontsuak guztioi!



Azaroak 27, larunbata: lagun taldeen eta mozorrotuen eguna:

Egun guztian zehar: Mozorroturiko lagun taldeek herriko kaleak alaituko dituzte.
12:00etan: Haurren danborrada herriko kaleetan zehar, Los Incansables txaranga-ren doinuak jarraituz.
Eguerdian: Mozorroturiko lagun taldeen bazkaria Zubipe kiroldegian.
22:30ean: 'Ingo al deu' taldearekin dantzaldia txosnetako karpan.
23:00etan: Drindots taldearekin dantzaldia herriko plazan.

Azaroak 28, igandea:

Egun guztian zehar: Haurrentzako parkea Zubipe kiroldegian. Orduetgia: 12:30etik 14:30era eta 16:00etatik 18:00etara.
11:00etatik 14:00etara: Herriko plazan: Ormaiztegiko XXIV. Odolki lehiaketa. XIII. Odolki osagaien azoka eta lehiaketa. Euskal Herriko produktuen azoka eta erakusketa. Ormaiztegiko odolkia osagaitzat duten plateren XI. Sukaldaritzaren lehiaketa 'Joxe Luix Mendizabalen' omenez.
12:00etan: Ardo dastaketa.
18:30ean: Goruntz dantza taldearen saioa Zubipe kiroldegian.

Azaroak 29, astelehena: haur mozorrotuen eguna:

Egun guztian zehar: Haurrentzako parkea Zubipe kiroldegian. Orduetgia: 12:00etatik 14:30etara eta 16:00etatik 18:00etara.
17:30ean: Haurrentzako merienda.
19:00etan: Pilota txapelketako finala.
23:00etan: Helduen danborrada herriko kaleetan zehar.

Azaroak 30, asteartea: haur mozorrotuen eguna:

11:30ean: Txindata musika eskolako txistularien goiz eresia, herriko kaleetan zehar.
12:30ean: Ormaiztegiko Urmaiz abesbatzak abesturiko Meza Nagusia Ander Deunaren omenez eskainia.
Jarraian: Udalak eskainitako hamaiketako Baso-Txulo elkartearen laguntzarekin, herriko enparantzan.
13:15ean: Herri kirol jaialdia, herriko enparantzan. 4 aizkolarari lehiatzen. Harrijasotzailea: Mikel Saralegi.
17:30ean: Haurrentzako merienda.
19:00etan: Bertso jaialdia, Zubipe kiroldegian. Bertsolariak: Amets Arzallus, Julio Soto, Aitzol Barandiaran eta Maialen Lujanbio. Gai jartzailea: Unai Elizasu.



ARANA TABERNAk

Jai zoriontsuak opa dizkizue!

☎ 943 16 02 05

ORMAIZTEGI

ARANTXA taberna

Bonoloto
Primitiva
Kinielak

Pintxo eta ogitartekoak

San Andres, 13
☎ 943 88 28 22

ORMAIZTEGI

ironatura
masajista

Kiromasajea (giharretako minarentzat)
Kirol Masajea
Estresaren aurkako eta erfaxatzeko masajea
Zumalakarregi, 6 ORMAIZTEGI
T.943 164 970 M.696 601 831

ITSAZO

- Apalak, manparak
- Mantenimendu eta biltegitratzea
- Altzarigintza industrialia
- Bulego altzariak

☎ 943 88 77 90
Faxa: 943 88 82 67
Zumarralde 10
ORMAIZTEGI

HESTEBETEAK "ORMAIZTEGI" ODOLKIAK

JESUS MARI DEBA

Aurten Beasaingo odolki txapelketako irabazlea
Azken 3 urtetan Zumarragako buzkantza lehiaketako irabazlea

● **Barazki eta arroz-odolkiak** Nekazaritza eta Arrantza Sailak baimendua
 ● **Mondejuak** Bereziak harategi eta jatetxeetarako

Anduaga Industrialdea, 9 ☎ 943 72 17 10 **EZKIO-ITSASO**
 Zumalakarregi Plaza, z/g ☎ 943 88 26 59 **ORMAIZTEGI**

Goi

Goierritarra aldizkaria
943 16 00 56

ITSASO
apaindegia
ILEAPAINDEGIA, ESTETIKA, MASAIK

Jai zoriontsuak denoi!

ILEAPAINDEGIA
 ✖ Azken teknika eta estiloak
 ✖ Tratamendu bereziak ile erorketa, eta abar.

ESTETIKA
 ✖ Depilazioak, elektrikoa
 ✖ Gorputz eta aurpegi tratamenduak
 ✖ Masaiak eta aerografoa

San Andres, 31 ☎ 943 88 06 24 **ORMAIZTEGI**



Irizar, mende bat betea eta hazten

www.irizar.com



Luzio Iraeta ormaiztegiarraren artelana:

1933. urteko Opel P6, piezaz pieza berrituta

Luzio Iraeta ormaiztegiarrak, semeentzako auto txiki bat, kart moduko bat egin zuen lehenengo, motozerra baten motorrarekin. Hurrena, auto handixeagoa egin zuen, Vesparen motorrarekin. Duela lau urte, 1933. urteko Opel P6 auto erosteko aukera izan zuen eta berau berritzea izan da Luzioren azken lau urteotako lana. Autoan tturtur ibiliz, pozik erakusten du bere artelana.

Izan ere, artelanaren parekoa da Luzio Iraetaren Opel P6-a. Pixkanaka-pixkanaka, pieza zaharrak kendu eta berriak jartzen joan da, gaur egun duen itxura dotorea lortu arte. Kanpoko itxuraz gain, ordea, pieza orijinalak lortzen ahalegin berezia egin du ormaiztegiarrak, traste zaharren azoketan, eta ederki dabil Opel P6a.

Duela lau urte izan zuen Opel P6 erosteko aukera. Zortea izan zuen, horrelako autoak erostea ez baita erraza izaten. “Zoritxarren bat tartean badago izaten da erosteko aukera. Normalean gizonetako izaten da horrelako ibilgailuekin aritzen dena. Hura joaten den garaian, andreak normalean, kentzeko eskatzen du. Horrelako bat harraipatzen baduzu, ondo, bestela ez da saltzen. Eta saltzekotan, aurretik daukana saltzen du, beste bat hobea edo handiagoa erosteko. Nire auto honek, niretzat, ez dauka preziorik”, dio Iraetak. Bere kasuan, Zumarragako lagun batek, adinez aurrera zoala eta konpontzeko asmorik ez zuenez, saldu zion Luziori.

Ondo etorri zitzaion ormaiztegiarrari denborapasa berria. “2001ean, seme zaharrena hil zitzaigun istripu batean. Zerbait behar, entretenimendua behar nuen. Kotxe zaharren bat erostea pentsatu genuen. Frantziako Avignon aldera joatekoak ginen auto bat erostera. Hartan ari ginela, taldeko lagun batek, ez zuela konpondu behar esan zidan.

Fitxa teknikoa

Marka	Opel
Modeloa	P6
Fabrikazio data	1933
Matrikula	B-52680
Pisua	950 kg.
Zilindrada	1792 cc
Zilindro kopurua	6
Potentzia fiskala	14,67
Zaldiak	34
Erregaia	gasolina
Abiadura	90 km/h
Martxa kopurua	4
Balaztak	barilazkoak



Lan handia egin zutela, 52 urte eta ez zuela konpondu behar. Hari hartu nion”.

77 urte

1933an, Bartzelonan egindakoa da Opel P6-a. Lau zilindroren prezioan egindako lehenengo sei zilindroko modeloa. “Opel P6 autoa, gerra aurretik egindakoa zen. Baina gerra hasi zen eta bertan behera gelditu zen”, dio ormaiztegiarrak.

Luzio Iraetarena bezalako auto zahar askorik ez da Goierrin eta inguruan. Adibide bat eman digu. Frantziako bilkura batera joan ziren. 64 zenbakia zuen Luzioren autoak. “Zenbaki horrek esan nahi, 110 autotatik 64. zaharrena nintzela. Aurrekoak, nirea baino zaharragoak ziren. Zaharrena, 1898koa zen”. Dena den, azalpen bat eman nahi izan du: “Zaharragoak beharbada egongo dira, baina zenbatak ibiltzen dute? Badaukate

baina ez die jendeari erakusten. Guk erosten duguna, hartu eta ibili egiten dugu”.

Gutxi egotearen ondorioz, piezak lortzeko zailtasuna izan du Iraetak. “Auto hau ez da existitzen. Espainia guztian, horrelako bi egongo dira. Hemen ez dago ezer ere. Rolls Royce edo Mercedes bezala, kotxe handia izango balitz, asko izan balira... gehiago egongo lirakeke”. Frantzian adibidez, Citroen eta Peugeot markakoak omen dira gehien ikusten diren auto zaharrak.

Erreta

Autoaren ezkeraldea erreta zuen Opel P6-ak ormaiztegiarrak erosi zuenean. Lau urte dira autoa erosi zuela eta lau urte behar izan ditu autoa erabat konpontzeko. Berak egin du ahal duen guztia. “Erosi eta konpontzeko beste bati emanda, oso garestia ateratzen da. Kotxearen balioa baino gehiago balio du”.

Ondo zegoena ez du ikutu, baina bestea, piezaz pieza txukundu du. Batzuk konpondu eta besteak, berak egin ditu.

Makina bat ezusteko izan du konpontze lanean ari zenean. “Zenbat aldiz esan dudan aibala! Harrituta. Hau nolatan...?”, aitortu du Iraetak. Adibide bat jarri digu ormaiztegiarrak, “Ateetako tapiza askatzen hasi, tornilo bat kendu, bestea kendu, baina ezin kendu. Iltzeak zeuzkala konturatu nintzen. Ez duzu pentsatzen egurrezkoa izan behar duenik, eta

egurrezkoa da buelta guztia. Egitura, zurarekin egin eta txaparekin forratuta dago. Zein egur ote daukan? Eta ideiarik ere! Gaztaina eta haritza igual, baina ez dakit. Auskalo!”

Aulkien eta ateen tapizeriari dagokionean, orijinala mantendu du. Hori bai, atzeko aulkieren barrualdea erabat konpondu du. Nola egin duen azaldu du: “Muelledun koltxoia hartu, soka berezi batekin, muelleak lotu eta estutu ditut. 32 muelle ditu. Bi aldiz egin nuen. Gero, tapiz berdinarekin forratu nuen”.

Piezak lortzeko zailtasuna

Opel P6ren tripak askatu eta jatorrizko piezak lortzen saiatu da Iraeta. “Aurrekoak errekonstruzioa ahal zuen bezala egingo zuen, ez bere piezekin. Ni saiatu naiz jatorrizko piezak aurkitzen. Frantzian aurkitu ditut pieza gehienak. Tarbes oso ona da niretzat. Han lortu nituen fokoak. Hori bai, lortzen dazuna, txatarra bat izaten da eta dena lizatu egin behar da, pieza guztiak birgaitu behar dira. Kromatutako piezak, Valentziara bidali nituen.. eskuzko azeleragailua jarri diot. Guretzat azokarik onenak, autoak briluarekin ikusten dena baino, lurrean pieza mordo bat ikusten dugunean izaten da”.

Azoka horietako batean, jatorrizko karburadorea erosi zuen. “Gerra eman didana, karburadorea lortzea izan da. Denek esaten zidaten ez nuela lortuko, baina lortu

Haurrentzako jostailua

Semeentzat jostailu gisa, kart txiki bat eraiki zuen Luzioak. Hura izan zen bere lehenengo lana. “Motozerra baten motorrarekin egin nuen. Kaja kanbio txiki bat jarri eta motozerrak, enbrage automatikoa zeukanez, azeleratzen baldin bazen, ibili egiten zen eta bestela bat ere ez. 3 urterekin ibili zen umeak. Ormaizteko ume gehienak ibili ziren”, dio Luzio Iraetak.

Umeak handitzen zihoazen eran, auto handixeago egitea pentsatu zuen. Vespa motorraren motorra erabili zuen horretarako. “Hondatu eta beste motor bat jarri genion gero. Suzuki 400 zilindrikoa. Gurpilak, Vesparenak eta Miniarenak ditu. Txapa guztia, nik egin nuen, garajejan bertan”. Hortik sortu zitzaion ibilgailuekiko grina. “Kate bat da” dio.



nuen. Bi egunean muntatu nuen, eta ederki dabil orain bere piezekin”.

Aurten gurpil berriak eta ihes-tutua jarri dizkio. “Gurpilaren kubiartak, Amerikatik ekarri ditut, 5 arrastokoak. Radioak berriz, Bartzelonan egin dizkidate inoxidable errefortzatuzkoak. Montatu, Zizurkilan montatu genuen”. Merkuriozko termometroa dauka jarrita, autoaren temperatura markatzeko.

Burua asko nekatu du, pieza ezberdinak non eskuratu ote zitzakeen. Adibide bat jarri digu ormaiztegiarraik. “Tirafondo guztiak, Iparraldetik, Donibane Lohizunetik ekarri nituen, Itsas Kooperatibatik. Egurrezko belauntziak egiteko erabiltzen dituzte. Baina etorri egin behar zaizu burura! Egurrerako tirafondoak dira eta inoxidablezkoak. Ezin sartu ibili nintzen. Lehenengo, taladroarekin zulotxoak egin behar izan nituen. Egurra hain zen gogorra!”.

Beltza eta oliba berde kolorekoa da Opel P6a. Emazteak aukeratu zituen

koloreak. “Baserrian bertan margotua da”, dio. “Aire egokitua badauka: aurreko leihoa igotzen zaio”, dio umorez. Hiru bozina mota ditu.

Azterketa teknikoa

Ibilgailuen azterketa teknikoa pasatu behar izaten dute horrelako autoek ere. IAT edo ITV-a pasatu behar horrekin, autoa hiru hilabeterako ibiltzeko moduan jartzea lortu zuen. “Kotxea erostetik martxan jartzera, 3 hilabete pasatu ziren. Aste Santuan erosi nuen. Autoa horrenbeste ordaindu baina nire izenean ez zegoen autoa, eta nire izenean jartzeko, ITV-a pasatu beharra neukan, eta ITV-a pasatzeko konpondu egin behar. Aurreneko asmoa, partxe-lana egin eta ITV pasatzea zen. Baina hasi ginen, hau desmontatu, bestea egin... eta hiru hilabetean martxan jarri genuen. Ez zidan inork ere sinisten. Taldeko batek 12 urte pasatu zituen”, dio Iraetak.

Ibilgailuen Azterketa Teknikoa, beste autoek gainditu behar duten horietakoa

ote den galdetu diogu. “Gerra hor ibiltzen dugu. Makinatan sartzen dute eta makinak ematen duen astinduekin! Lehenengo urtean, hiru radio puskatu zizkidaten. Berriak jartzeko, egin egin behar dira. Gerra hor ibiltzen dugu. Beraiek, historiko egitea nahi dute. Historiko matrikula jarri eta 5 urtean behin pasatzen da ITV-a eta ezin dute makinatan sartu. Eskuz begiratu behar dute dena”.

Beste datu bat eman digu ormaiztegiarrak: udal zergarik ez dute ordaintzen horrelako autoek. Asegurua bai.

Gozamena

Artelana osatu du Luzio Iraetak eta gustura dago lortu duenarekin. “Nahi baino gutxiago ibiltzen naiz, ni behintzat gehiago ibiliko nintzateke. Baina denera ezin iritsi”. Opel P6a gidatzen duenean, zer sentitzen ote duen galdetu diogu. “Gozamena! Batzuei ez zaie gustatzen, denak begira gelditzen direlako”.

Alde handia dago, gaur egungo autoa gidatzetik duela

77 urteko autoa gidatzera, baina “berehala jartzen da. 5 bat kilometro egiterako, jartzen da. Bestela, alde handia dago. Abiadura? Zapalduz gero, 100 km/h harrapatzen du. 80 km/h oso ondo ibiltzen da. Lasai joaten gara”.

Amets bat bete du, eta badu beste bat orain: “hilabete hartu eta Espainiari buelta ematea. Lasai joango nintzateke, ttur-ttur, batere presarik gabe”.

Ezkontzetarako ere alokatzen du Opel P6a Luzio Iraetak. “Hortik sos apur batzuk atera eta berrituko erabiltzen dut dirua. Laguntza pixka bat da”.

Izpegiko aldapa

Aintzinako ibilgailuak dituztenek, bilkurak eta irteerak egiten dituzte. Bukatzeko, balaztekin zerikusia duen bitxikeria bat kontatu digu. “Izpegiko maldak jaisten, nahikoa komeri izan genuen. Instrukzio liburuan, jartzen zuen ahal izan den abiadura berdinean jaisteko. Bigarren martxan igo bada, bigarrenaren jaitsi. Eta hala jaitsi ginen”.



'Ni ere azokara' proiektua jarri dute martxan
Ordiziako Udalak eta D'elikatuzekek

Ordiziako azokan erosketak egin, bertara joan gabe

Aukera horixe eskaintzen dute Ordiziako Udalak eta D'Elikatuz zentroak, urriaren 6az geroztik. Astero, Ordiziako azokara joan beharrik gabe, Ordiziako azokako produktuak erosteko aukeraz baliatzen diren 16 laguneko zerrenda dauka dagoeneko D'Elikatuzek. Zerrenda hori handitu nahian dabilta, erosketa sistema honekin, gustura baitago jendea.

'Ni ere azokara' jarri diote izena Ordiziako azoka indartzea helburu duen proiektu honi. Urriaren 6an hasi ziren saldu-erosi sistema honekin. Ekoizleak gustura daude, eta erosleak ere bai. Erosleen profilari begiratuta, lanean ari den jende gaztea da parte hartzen ari dena. Ordiziako bertakoa, zein Goierriko beste hainbat herrietakoak.

Helburuak

Leire Arandia, D'Elikatuz zentroaren zuzendariak adierazi digunez, helburu bat baino gehiago ditu 'Ni ere azokara' ekimenak: salmenta zuzena bultzatuz, garaian garaiko kalitatezko produktuak erosteko aukera zabaltzea, bide batez, azokako salmentak handituz. "Proiektu honetan, arrazoiak hori da, salmentak handitzea eta kalitatezko produktuak, eta garaian garaikoa, kontsumitzeko aukera ematea, eta zuzenean ekoizleari erosteko aukera eta irabazi guztiak, ekoizlearengana joan dadila".

Proiektu aitzindaria da Ordizian antolatu dutena. "Gure helburua litzateke,



Azokaren egoera

Ordiziako azokak 500 urte beteko dituen honetan, zein da Ordiziako azokaren egoera?

2000. urtean hasi ziren ikerketa batzuk egiten eta aspalditik ikusten da beherakada. Ekoizleei galdetu besterik ez dago. Edo ostalariei ere bai. Martinez bati galdetzen badiozu, orain dela 30 urte nola lan egiten zuen eta gaur egun nola egiten duen, ez dauka inongo zerikusirik. Merkatariekin ere hitz egin dugu. Merkatariek baloratzen dute asteazkena ezberdina dela Ordizian. Gehiago saltzen dutela asteazkenetan. Baina orain dela 30 urterekin alderatuz, jaitsi egin da.

Ikusten dugu, ez badugu ezer ere egiten, epe ertain-luze batera, beherakada nabarmena izango duela eta horrek arduratu egiten gaitu. Horren bueltan ari gara lanean.

Baserritarren adina ere kontuan hartzeko beste elementu bat da.

Bai, faktore asko daude. Ekoizleen adina, eta ez dago jarraipenik. Baina aukera berriak eskaintzen baditugu, bizimodua aurrera ateratzeko modu erosoago bat, beharbada gazteak animatuko dira bide horretatik jarraitzea.



IBAI ONDO
ARROZTEGIA

- Aroztegia
- Altzariak neurritan
- PVC, aluminio eta egurrezko lehoiak

Katea, 5 - Antzizar auzoa - BEASAIN
Tel.: 943 16 40 40 / 639 631 640 Faxa: 943 16 47 47
www.mueblesibaiondo.com



SILVIAMIRASCASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zka: 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



Ordizia izatea, lehenengo sektorearekin lotura duten proiektu piloatoak martxan jarriko dituena. Ordizia erreferente izan dadila, azoka eta lehen sektoreari dagozkion plan piloto horien gune bezala. Hau, plan piloto horietako bat izango litzateke. Gustatuko litzaziguke lehenengo sektorearen alde lana egitea. Horrek ez du esan nahi Ordizia izango denik lehen sektorearen salbatzailea”, dio Arandiak.

Azokaren garrantzia

Izan ere, Ordizian, urteetan eta urteetan garrantzia izan du azokak. 500 urte beteko ditu 2012. urtean, eta batzorde berezia sortu da ospakizun hori antolatzeko eta azokaren iraupena ziurtatzeko.

Testuinguru horretan kokatu dute ‘Ni ere azokara’ ekimena. “Azokaren 5. mendeurrena dela eta, azoka batzordea sortu zen, mendeurren hori ospatzeko. Baina ez dugu ospakizun hutsean gelditu nahi. Azken urteetan ikusi dugun bilakaeragatik, ikusi dugu, azokako salmentak gutxitzen joan direla. Ohiturak aldatzen ari dira, jendeak ez du denborarik hartzen azokara joateko, bai

saltzaileen eta bai erosleen batzbesteko adina ere nahiko handia da, eta ikusten da, azoka ez bada garai berrietara egokitzen, epe ertain-luze batean, azoka desagertzen joango dela. Udalak aurre egiten saiatzeko asmoa du, Ordiziaren bilakaeran hainbesteko garrantzia izan duenez. Ildo horretatik, jendeari transmititu behar zaio azokan erozteak daukan onura, bai produktuen freskotasunaren

eta kalitatearen aldetik, eta baita ere, zuzenean ekoizleri erosten zaiolako. Guk tresnak jarri nahi ditugu azoka bizirik eusteko. Inork ez dezala aitzakia bezala erabili, azokara ezin duela joan esanez”.

Hori bai, beste ekintza mota batzuk ere landu behar dituztela uste du Leire Arandiak. “Jakina, beste jarduera batzuk ere egin behar dira. Salmenta zuzenarekin oso gustura egon daitezke baserritarrak, baina azoka ez litzateke mantenduko”.

“Ikusten da, azoka ez bada garai berrietara egokitzen, epe ertain luze batean, azoka desagertzen joango dela”.

Fideltasuna eta konfiantza

Erosketa sistema honek, abantailak izan baditu ere, desabantaila bat baino gehiago badu Leire Arandiak eta Gema Lopezek adierazi digu-

LEIAR **LEIAR**

KRISTALDEGIA
ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g
☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea
☎ 943 88 60 70

BEASAIN

ZUBARA
Ereikuntzak s.l.

Promoziok, Eraikuntzak, Erreformak... 943 65 34 93 - 649 46 32 89
ABALTZISKETA



Saldu erosi, zuzeneko salmenta

16 erosleren eta 9 ekoizleren arteko sarea da Ordizian osatu dutena. Guztiak, D'Elikatuzek koordinatzen ditu. Lehenik eta behin, ekoizle bakoitzak asteazkenerako prest izango dituzten produktuen zerrenda osatzen du D'Elikatuzek. Zein ekoizlek zein produktu izango duen eta negutegikoa den ala ez zehazten da bertan. Zerrenda hori, erosleei bidali eta astelehen-astearterako, zein ekoizleri zer erosi nahi dion jakinarazten dio D'Elikatuzi. "Zerrendak berriro egiten ditugu aste batetik bestera, produktu batzuk bukatu eta beste batzuk hasi egiten baitira", dio D'Elikatuzeko Gema Lopezek.

Asteazkenean, goizean goiz, azokara joan eta ekoizleek erosleentzat prestatutako poltsak hartu, bere prezioarekin, D'Elikatuzera eramaten ditu. Gema Lopezek adierazi duenez, "erosle batzuk, ekoizle bakar bati eskatzen dizkie produktuak, baina beste batzuk, ekoizle bati baino gehiagori".

Enkarguak, D'Elikatuz zentrora eraman eta poltsa bakoitza, armariotxoetan gordetzen dute. Armariotxo bakoitzak, zenbaki bat du, erosle bakoitzak berea. Enkarguak arratsaldeko 7ak arte jaso daitezke.. Produktuen arabera, hozkailua ere badaugu D'Elikatuzen.

Enkarguak jasotzearekin batera, erosketen ordainagiria ere jasotzen dute erosleek, zer, nori eta zenbatean erosi duten zehaztuz. D'Elikatuzekoek dirua jaso eta hurrengo astean, ekoizleei ematen diete dirua. Bitartekaritzarik ez zaie kobratzen, ez erosleei, ez ekoizleei.

Baldintza, konpromisoa hartzea

Sal-erosi sistema honetan parte hartu nahi duenak, baldintza bakarra bete behar du: konpromisoa. "Gutxieneko konpromisoa hartzea nahi izan dugu. 10 euroko erosketa egitea eskatzen da baina malguak gara. Aste batean onddoak edo gaztaia erosiz gero, gehiagokoa egingo du. Eta beste batean, gutxixeago. Jendeak konpromisoa hartzea nahi genuen, ez zitzala bi letxuga bakarrik eskatu. Erosketak ia astero egiteko konpromisoa izatea ere bai", azpimarratu du Lopezek.

tenez: "proiektu honek daukan desabantaila da, erosleak ez duela produktua ikusi eta aukeratzeko". Hori horrela izanik, erosle-saltzaile arteko konfiantza landu beharreko faktorea izango da.

Beste desabantaila bat, eroslearen eta saltzailearen artean zuzeneko harremanik eza da. "Hori ere konpontzen saiatu nahi dugu, erosle eta saltzaile arteko harremana egotea nahi baitugu. Adibidez, ondo legoke egunen batean, erosleak eta sal-

tzaileak elkartu eta elkar eza-gutzea. Norbaitek baserrira joan nahi izango balu, aukera izango luke. Irteerak edo bisitak antola daitezke", gaineratu dute.

Baina abantailak gehiago direlako, erosleak eta ekoizleak mimatu nahi dituzte D'Elikatuzekoek. Adibidez, erosleen fideltasuna sartu nahi dute. "Hilean behin zozketa egingo dugu parte hartzen ari direnen artean, Ordiziako Merkatariekin elkarlanean".

Parte hartzeko

'Ni ere azokara' ekimenean parte hartzeko, D'Elikatuzekin harremanetan jarri behar da. Hiru bide daude

horretarako: telefonoz deitzea (943882290), bertara joatea (Ordiziako Andra Mari kalea, 24) edo e-mailez (delikatuz@ordizia.org).

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

- Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
- Filtroak, olioak, engrasea
- Frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
- Harezko txorrotadak



Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

over Urraki

Bidaietan adituak

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

Ordizia

Mendi astea

Ordiziako Mendizaleak elkarteak mendi astea antolatu du azaroaren 23tik 26ra. Ikusentzunezkoak, Barrena Kultur etxean izango dira, arratsaldeko 7,30etan. Hauek dira pres-tatu dituzten ikusentzunezkoak:

Azaroak 23, asteartea:

Ordiziako Mendizaleek urtean zehar egindako ibilaldien laburpena.

Azaroak 24, asteazkena:

Koke Lasak, 'Sisha Pangma' lana aurkeztuko du.

Azaroak 25, osteguna:

Oraindik zehazteko dago.

Azaroak 26, ostirala:

Pedro Garciaren 'Everest'.

Musika barrokoaren egunak

XXV. Barroko Aire, musika barrokoaren egunak dira egunok Ordizian. Aurtengo ekitaldia amaitzeko, bi emanaldi izango dira azaroaren 20an eta 27an, Elizan, iluntzeko 8etan.

Azaroaren 20an, etxeko sopranoa izango da protagonist-a: Ainhoa Garmendia. Iziar Barredo pianojolea izango du lagun.

Azaroaren 29an berriz, Ensemble Prometeo- Sevillako Solistas Orquesta Barroca, Maria Hinojosa (sopranoa) eta Pedro Gandia Martin (concertino-zuzendaria) izango dira Ordiziako Elizan.

Zegama-Segura

Santa Zezilia, Toberan

Tobera musika eskolak, Santa Zezilia eguna ospatuko du, azaroaren 18an Zegaman eta azaroaren 23an, Seguran. Jarraian duzue egitaraua:

Azaroak 18, Zegaman:

Arratsaldeko 6etan, herriko plazatik abiatuta, kalejira izango da Tobera Musika Eskolako trikitilarien eskutik (Zegama, Segura, Zerain eta Ormaiztegiko ikasleekin). Ondoren, kantu, dantza eta musika tresna ezberdinen kontzertuak izango dira, Aitxuri herri eskolako gimnasioan.

Azaroak 23, Seguran:

Zegamako ikuskizunaren parekoa izango da. Segurako emana-dia, Foru Aldundiaren aterpetxean izango da.

Lazkao

Joxe Arregirekin solasean

'Berriketan' saioaren barruan, Joxe Arregi frantziskotar ohia eta euskal teologoa arituko hizketan, azaroaren 23an, arratsaldeko 6,30etan, Ikastolako San Prudentzo eraikinean.

Liluratura, Fernando Morillorekin

Goierriko Euskal Eskolak, Liluratura saio berria antolatu du azaroaren 30erako. Bertan parte hartzeko, baldintza hona-koa da: Fernando Morillo idazlearen 'Bilbo Samurai' liburua irakurtzea. Honela, azaroaren 30ean, arratsaldeko 6,30etan, Lazkaoko San Benito Ikastolako aretoan, idazlea bertan dela, liburuari buruz solasean arituko dira bertaratzen direnak.

SOLOZABAL AUTO-ESKOLA

Mota guztietako
gida-baimenak
Teorikoa 5 egunetan
CAP baimen profesionala

Aita Urdaneta

ORDIZIA

☎ 943 88 72 76

ZAHARRA • BERRI

IGELTSERITZA ETA ERAIKUNTZA

A. Almeida

620 32 62 92

943 18 03 72

aiakoerrota@terra.es

ATAUN



Eraikuntzak

Gremioen koordinaketa

Erreforma orokorrak

Teilatuak

Beasain

Azaroko ekintzak

Azaroak 18, osteguna:

18:00etan: Mahai ingurua: Asmuberen XX. urteurrena, Igartza jauregian.

18:30ean: Ikusentzunekoa: 'Eneko eta Miyuki, Hego Amerika tandemean'. Udal Euskaltegia.

18:30ean: Musika Eskolako banda eta txistulariak, Santa Zeziliaren oroimenez. Gernika pasealekuko pilotalekuan.

21:00etan: Goieniz: 'Latcho drom', Usurbe antzokian.

Azaroak 19, ostirala:

20:00etan: Vaya Semanita antzezlan, Usurbe Antzokian.

22:30ean: Vaya Semanita antzezlan, Usurbe Antzokian.

Azaroak 23, asteartea:

18:30ean: Hitzaldia: 'Emakumea, ama eta monja, Franco garaian'. Udal Batzar aretoan, Asmubek antolatuta.

Azaroak 24, asteazkena:

17:30ean: Ipuin kontaketa: Txanogorritxu can speak English/Txanogorritxuk ingelesez badaki, Berritsu ludotekan.

19:00etan: Ikusentzunekoa: 'Flish Haitzen hitza', Udal Euskaltegia.

Azaroak 28, igandea:

08:00etan: Mendi irteera: Larraona, Urbasa.

Azaroak 30, asteartea:

09:30ean: Haur zinea eskolaumeentzat: 'Malabar printzesa'. Usurbe Antzokian.

Erakusketa

Azaroaren 18tik 28ra:

'Haitiko lurrikararen ondorena' erakusketa antolatu du Herriak Elkarlanean erakundeak, Usurbe Antzokiko Erakusketa aretoan dago ikusgai.

Goieniz

Azaroak 25, osteguna: 'Utopia' filma, Usurbe Antzokian, gaueko 21:00etan hasita.

Legorreta

Neguko festa

Santa Zezilia egunaren aitzakian, Neguko festa antolatu dute Udalak, Ugarotarrak Guraso Elkartek, Elekun abesbatzak eta Musika Eskolak. Musika eta gaztainak uztartuko dituzte asteburuan. Jarraian duzue egitaraua:

Azaroak 19, ostirala:

20:00etan: Elekun Abesbatzaren emanaldia herriko kaleetan zehar, Santa Zezilia ospatuz.

Azaroak 20, larunbata:

17:30ean: Kalejira Musika Eskolako Txistulariekin, Santa Zezilia ospatuz.

18:30ean: Gaztaina jana, Udal Pilotalekuan.

Gabiria

Errezil sagarr lehiaketa

Azaroaren 21ean jokatu da X. Errezil sagar eta sagar-goxo lehiaketa. Lehiatz gain, baserriko produktuen azoka ere izango da, Gabiriako plazan. Hona hemen igandeko egitaraua:

09:00etan: Parte hartzaileen harrera eta azokaren irekitzea.

11:00etan: 'Membrilloa nola egin' erakusketa.

13:00etan: Sagar dantza eta sari banaketa.

Ondoren: Sagar zozketa eta lehiaketara aurkeztutako membrilloa eta baserriko ogia banatuko dira.

Giroa alaituz, goizean zehar, Gabiriko trikilaria arituko dira



ondoeta

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: ondoeta@ondoeta.com

www.ondoeta.com

© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA



Ikaskide

irakaskuntza eta pedagogia

ESKOLA LAGUNTZA

UNIBERTSITATE MAILA (MU)

IKASKETA TEKNIKAK

INGELERA

INFORMATIKA - MEKANOGRAFIA

IKASKEA ARAZOAK

Joan Iturralde, 5 eta Urbialde 7

Beasain

943 160 120

685 722 403 - 675 006 462

ikaskide@ikaskide.net



Ormaiztegiako eskolako mutikoak, 1917. urte inguruan

Ander Iurritak Ormaiztegin lortu duen argazkirik zaharrena da honakoa, beraz, ezinezkoa izan du izen asko lortzea.

Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Ezezaguna, Floro Irizar Salazar (Muebles San Anton), ezezaguna, Patxi Iurrita (Mendizabalgarakoa), Juanito Mantzisor, ezezaguna, Modesto Kanpos (Eliztondo), Patxi Ezkurdia eta Gregorio Manuel Salazar (maiusa).

Erdiko ilaran: Lehen laurak ezezagunak, bostgarrena: Patxi Elorza (Arangurentxiki), hurrengo bostak ezezagunak eta eskuinekoa: Joxe Migel Irizar Urkiola.

Beheko ilaran: Lehen hiruak ezezagunak, laugarrena: Irizar Salazar (Muebles San Anton), bostgarrena eta seigarrena ezezagunak, zazpigarrena: Luis Ezkurdia eta gainontzekoak ezezagunak.

	NELSON BARBOSA ERREFORMAK
	Gremioen koordinazioa tel.: 687 837 011 Unzuruzaga, 9 behea SEGURA

PSIKOLOGI KLINIKOA Jose Ramon Pato Prieto Psikologian lizentziatua Elkargokide zenbakia: E-2644 RPS: 420/01	Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak
AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041 JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN	

 Amebi Sagardotegia	Erretegi bezala zabalik * Eguneroko menuak * Karta zerbitzua * Ospakizunak * Plater konbinatuak
Asteburuetan menu berezia: 20 euro kafea barne Zubierreka,9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO	

Kol. zkia.: 764 Nerea Larrea Oyarbide	
Aho kirurgia Inplantologia Periodontzia	Artikulazio eta ahoko minak Radiologia digital zerbitzua Eskaner digitala
Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118	

berrikuntzak // bainuak // sukaldeak // zeramikak // hidromasajea // gremioak // proiektuak



dekorazioa // diseinua // irisgarritasuna // aholkularitza teknikoak // laguntzen bideratzea

zubi termikoaren haustura • aroztegi mixtoa
PVC • poliuretanoa
barandak • horma-armairuak • bainuko manparak



Ezenarro
Leiho isolagarriak

Garmendia Otaola, 3 behea
BEASAIN
Tel.: 943 08 42 02

ezenarrosl@hotmail.com

San Francisco, 26 behea
TOLOSA
Tel.: 943 11 85 36



Leihoen
Renove Plana
2010



izi-ai

- ✗ Dermokosmetika
- ✗ Haurrentzat
 - Haur elikadura
 - Haur elikadura osagarriak
 - Hauren azala
 - Beste hainbat produktu
- ✗ Higienea
 - Gorputza
 - Ahoa
 - Ilea
 - Barnekoa
- ✗ Osasuna
- ✗ Zaintze bereziak

Parafarmazia

Jose Lasa, 15 - LAZKAO - Tel.: 943 02 77 63